

ANTONTXU OROITUAZ

Otoitz batekin egin nai degu
Antontxu zuri omena
Kristau izanik zuretzako zan
Otoitza gauzik onena
Zeruan arkituko zenduan
betirako atsedena
Zure ekintzak eskertutzeko
saririkan ederrena.

Eleiz onetan bataiatua
ta bertan zure illeta
Bi gertaera auen artean
igaro zendun bizitza
Bizitza ortan kristau bidea
ondo zendun ikasita
Bide eder oi utzi zenduan
ekintza onez beteta.

Gaur korutikan zure lagunak
gogoz ai dira abesten
Meza onetan goratarrea
kantuz dizute eskeintzen
Zenbat alditan koru orretan
kantari aritu ziñen
Orain zeruan egongo zera
zure lagunai entzuten

Erreterria 1997-5-18

Egun onetan Antontxuren asmoz egindako mezatan Miguel Ugaldek abestuak.



Argakia: Jesus Hingualter

ENPARANTZA BERRI BAT

Doiñua: Iparragirre abilla dala (Xenpelar)

Enparantza onen auskundera
gaur emen egiten degu
Bertan Erreteriko erriak
seme bat nai du aipatu
bere lanak oroitu
guk ez ditzagun aztu
Bizi geraden artian
berak bezela errian alde
jarrai dezagun lanian.

Bere bizitzan ainbat lan eder
egin zituan gogotik
Berak ain maite zuben erria
beti gogoan arturik
ikertzale batetik
leku-izenak bestetik
Ta idazlan ugariak
erriko musika edestian
arkituz xeetasunak.

Antontxu zuben bere izena
izanik Sainz abizena
Enparantza au gaurtik aurrera
orrela deituko dana
Errian esker ona
gaur azaldu zaiona
Auskunde berriarekin
ondorengoak gogoratzeko
aurrerantz izen onekin

Erreterria 1997-5-18



Argakia: Valentin